

I. ERANSKINA
LAN-POL TSA ZABALTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK
«JARDUERA ESPEZIFIKOETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA»:
«MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUAK»

Lehena.- Helburua eta oinarrizko elementuak.-

1.1.- Deialdi honen helburua da «Jarduera Espezifikoetako Teknikari Laguntzaileen» lan-poltsa zabaltzea, Mantentze Lanak eta Produkzioko Zerbitzuak espezialitatekoa, UPV/EHU n aldi baterako zerbitzuak betetzeari begira.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Hautatzen diren pertsonen lanpostu hutsak beteko dituzte (lanpostuok legean zehaztutako prozeduren arabera bete arte) edo aldi baterako premiak beteko dituzte. Kasuan kasuko lanpostua edo premiak betetzeko behar diren baldintzak bete beharko dituzte betiere.

1.2.2.- Lanaldia eta ordainsariak izango dira kasuan kasuko lanpostu edo premiei dagozkienak.

1.2.3.- Lanpostuak UPV/EHUren edozein gunetan egon ahal izango dira, hiru herrialde historikoetako edozeinetan.

1.2.4.- Hautatutako langileak sartuko dira Mantentze Lanak eta Produkzioko Zerbitzuak espezialitateko «Jarduera Espezifikoetarako Teknikari Laguntzaileen» lan-poltsan, zerrendan egondako azken pertsonaren ondoren. Lan-poltsa erabiliko da lan-poltsen kudeaketari buruzko arautegiari jarraituz.

1.2.5.- Aplikatu beharreko arau orokorrez gain, kasu honetan aplikatuko dira lan-poltsari buruzko akordioak eta UPV/EHUko gerentearen 2002ko uztailaren 1eko Zirkularra, AZPko langileak kontratatzeke irizpideei eta prozedurari buruzkoa.

Bigarrena.- Bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Hautapen prozesuan parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.

- b. Titulu hauetakoren bat edukitzea edo bera eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Bigarren Hezkuntzako graduatua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko graduatua, Lanbide Heziketako teknikaria edo teknikari laguntzailea.
- c. Eskaria behar bezala beteta aurkeztea, deialdiko hirugarren oinarriari jarraituz.
- d. Europar Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta estatu espainiarrak berretsitako nazioarteko itunen ondorioz langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estaturen batekoa. Europar Batasuneko herrialdeetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, non eta ez dauden legez bananduta, eta baita ezkontideon oinordekoek ere, baldin eta ezkontideak ez badaude legez bananduta eta oinordekoak 21 urtez beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izan arren, ezkontideen mende bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan aipatu ez diren eta estatu espainiarrean bizi diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute. Hautatuak izanez gero, kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko dute badaukatela administrazio baimena kasuan kasuko jarduera egiteko.
- e. Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, betiere hori traba izan gabe azaroaren 29ko 2013/1 Legegintzako Errege Dekretuari, hau da, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta inklusio sozialari buruzko testu bateratuari. Lan-poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak gaitasun fisikoa eta psikikoa egiaztatu beharko du ziurtagiri edo osasun azterketaren bidez. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da aldi baterako lan kontratuak eraginkortasuna izateko. Desgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira, baldin eta egiaztatzen badute behar besteko gaitasuna dutela kasuan kasuko zerrendako lanpostuetako zereginak betetzeko.
- f. Diziplina espediente baten bidez baztertuta ez egotea administrazio publikoetako edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik, eta ebazpen judizial baten bidez desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea postu edo kargu publikoak betetzeko edo funtzionarioen eskalan sartzeko, edo lan kontratudun langileen kasuan, interesduna baztertuta edo desgaitua izan den lanpostuko zereginen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaiturik edo pareko egoeran ez egotea, edo enplegu publikorako sarbidea modu berean galarazten duen zigorrak edo parekorik ez edukitzea.
- g. Ezintasun edo bateraezintasun legalik ez izatea.

2.2.- Hautagaiek baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako, g) letran aipatutako bateraezintasun baldintza izan ezik; azken hori aldi baterako lan kontratua sinatzean bete beharko da.

Hirugarrena.- Eskariak aurkezteko era.-

3.1.- Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, honako modalitate hauetako batean:

- a) Modu elektronikoan. [Lan-eskaintzen Ataria \(http://gestion-enplegu.ehu.es\)](http://gestion-enplegu.ehu.es)-n sartu eta eskaera osatu ondoren berau igorrita. Modu hori erabiliz gero, sistemak hartu izanaren adierazpena luzatuko du, erreferentzia zenbakia izango duena.
- b) Interneteko helbide honetan dagoen inprimakia betez: <http://go.ehu.eus/seleccion-pas>

3.2.- Aurreko bi kasuetan merezimenduen zerrenda eta horiek egiaztatzeko kopiak erregistratu beharko dira, eskaria bera ere bigarren aukera erabiltzekotan, 3.3. oinarriak adierazitako leku eta moduan. **Lan-poltsaren 6.1. ("merezimenduen balioespena") eta 6.2. ("euskara") oinarrietan aipatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko.**

3.3.- Eskaeran adierazi beharko da Bigarren Oinarriko betekizun guzti-guztiak betetzen direla, berauek aurkezteko epea burutzerako, oinarrietako bigarren ataleko salbuespena salbuetsita.

3.4.- Eskariak aurkezteko lekuak.

Eskariak modu elektronikoan aurkezten ez badira, UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan aurkeztu beharko dira.

UPV/EHUren Erregistro Orokorreko bulegoen zerrenda jasota dago UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakian (UPV/EHUko Erregistro Orokorren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegia).

Baita Interneteko honako helbide honetan ere:
<http://go.ehu.eus/erregistro-bulegoak>

Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean adierazitako bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16. art.).

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek gerenteari zuzendu beharko diote eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

3.5.- Tasak:

Merezimenduak ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko eskaria aurkezteagatik ez da tasarik ordaindu beharko, baina proba teoriko-praktikorako deia hartzen dutenek tasa ordaindu beharko dute proba hori egiteko. Bere garaian zehaztuko da horretarako epea.

3.6.- Eskariak eta merezimenduak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.7.- Desgaitasunen bat daukaten langileek hala adierazi beharko dute eskarian, horretarako egongo den laukian. Era berean, beharrezko badute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Egokitzapenak beharrezkoak direla egiaztatzeko, eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion agiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu. Dokumentu horiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen aurkeztu beharko dira, epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan.

Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4. art.), hau da, administrazioako organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

Eskariarekin batera ez da aurkeztu beharko inolako dokumenturik, egokitzapenak eskatzeko eta tasak ordaindu izana egiaztatzeko aurreko atalean aipatutako dokumentazioa izan ezik.

3.8.- Prozedura honetan parte hartzeak berekin dakar baimena ematea eskarian ematen diren datu pertsonalak tratatzeko, bai behin-behineko eta behin betiko emaitzak web orrian eta EHU Taulan argitaratzeko eta bai lan

poltsen kudeaketarako. Interesdunek eskubidea dute beren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko. Horretarako, deialdia egin duen organora jo beharko dute.

Beraz, eskaria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak honen gaineko informazioa jaso duela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuetarako erabiltzeko.

Laugarrena.- Hautagaiak onartzea.-

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere **hilabete** bateko epean, UPV/EHUko gerentearen erabaki baten bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da UPV/EHUren web orrian, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean: <http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>

Baztertutako hautagaiek bost egun baliouduneko epea izango dute, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioa jartzeko.

Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsiko dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara emateko erabakiaren bidez.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 68.1 art.).

4.2.- Behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko epea amaitutakoan, hamar eguneko epean argitaratuko da onartutako hautagaien behin betiko zerrenda. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, UPV/EHUko gerenteari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretako dagokion epaitegian.

4.3.- Prozeduran zehar epaimahaiak jakingo balu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, baztertu egingo du hautagai hori prozesutik, aurretik hari entzunda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Hautagaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NAN zenbakia, edo atzerriko hautagaien

kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publizitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edozelan ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

Bosgarrena.- Epaimahaia.-

5.1.- Epaimahaia gizonen eta emakumeen osatua egongo da modu orekatuan. Epaimahaikideek gaitasun eta prestakuntza egokia izango dute.

Hiru kide izango ditu epaimahaiak: epaimahaiko burua eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kide; horietako bat idazkaria izango da.

Epaimahaiaren osaera gerentearen erabaki baten bidez argitaratuko da.

Epaimahaiak kide anitzeko organoen funtzionamendu arauari jarraituz jardungo du.

5.3.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa izanez gero, epaimahaiko buruaren botoak ebatziko du.

5.4.- Epaimahaian, gainera, bi ordezeko egongo dira. Horiek izendatuko dira titularrak izendatzearekin batera.

5.5.- Epaimahaia ezin izango da osatu, ezta aritu ere, ez badira bertaratzen epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezekoak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezekoak).

5.6.- Epaimahaiburuaren eta bere ordezekoaren kargua hutsik badago, edo kargurako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, maila, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikideek ordezkatu dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta bere ordezekoaren kargua hutsik badago, kargurako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, epaimahaiak gehiengo aukeratutako beste edozein epaimahaikidek ordezkatu du.

5.7.- Epaimahaikideak prozeduran parte hartetik abstenituko dira, eta UPV/EHUko gerenteari emango diote horren berri, Sektore Publikoaren

Araubide Juridikoaren Legearen (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean daudenean.

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege beraren 24. artikuluari jarraituz.

5.8.- Bermatu beharko da oposizio fasea gaindituko dutela probara aurkeztu diren pertsonen %33k gutxienez. Beraz, hautaketa sistema ondo aplikatzeko, epaimahaiak, kontuan hartuta probetan eskatu beharreko gutxieneko maila eta hautagaiek erakutsitakoa, aurkeztu diren pertsonak nortzuk diren jakin barik, eta fase hau gainditu behar duten pertsonen ehuneko hori lortzeko, jaitsi ahal izango du proba bakoitza gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa, eta argitara emango du bere erabakia.

5.9.- Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko Atala, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

Seigarrena.-Hautaketa prozesua.

Prozesua bi faseetan egingo da:

Lehen fasea

6.1.- Merezimenduen balorazioa.

Fase honetan gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira. Hautagai bakoitzaren kalifikazioa lortzeko, merezimenduak baloratuko dira eta guztien puntuak batuko dira. Baremo hau erabiliko da baloraziorako:

A) Lanbide Heziketako tituluak, arlo hauetakoak: instalazioa eta mantenimendua; zurgintza, altzarigintza eta kortxoa; eraikuntza eta obra zibila; eta elektrizitatea eta elektronika:

- Erdi Mailako Heziketa Zikloa, teknikari laguntzaile titulua edo teknikari titulua: 6 puntu bakoitzeko.
- Lanbide ziurtagiria:
 - a. 3. maila: 4 puntu bakoitzeko.
 - b. 2. maila: 3 puntu bakoitzeko.

c. 1. maila: 2 puntu bakoitzeko.

- Lanbide moduluak: puntu bat bakoitzeko.

B) Beste titulazio ofizial batzuk:

- Goi Mailako Heziketa Zikloa, teknikari espezialista titulua edo LOGSE teknikari titulua: 2 puntu bakoitzeko.
- Erdi Mailako Heziketa Zikloa, teknikari laguntzaile titulua edo teknikari titulua, baina A atalean aipatutako espezialitateetakoak ez direnak: puntu bat bakoitzeko.

Tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

C) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez puntu 2 emango zaie denera, irizpide honen arabera:
Frantsesa, ingelesa edo alemana:

:

- B1 edo goragokoa (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- A2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): puntu 1 hizkuntza bakoitzeko.

Balorazioa egiteko erabiliko dira Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez hizkuntza ez-ofizialeterako ezarritako mailen arteko baliokidetzak.

Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeko, tituluaren fotokopia aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntzen ezagutza maila egiaztatzeko.

6.2.- Euskara.- Euskara merezimendutzat joko da, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Honako puntuazio hau lor daiteke, gehien jota:

2. HE (B2) edo goragokoa: 3 puntu.

1. HE (B1): 1,5 puntu.

Hizkuntza-eskakizunak baliozkotzeko, bi arau hauek aplikatuko dira: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (41. artikulua), eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dira proba egiteko tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera.

6.3.- Ikasketa-tituluen eta hizkuntza ez ofizialen merezimendu lehiaketaren, eta euskararen faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea jarriko da erreklamazioak aurkezteko.

6.4.- Berdinketarik gertatuz gero, hautagaien hurrenkera erabakiko da atal bakoitzean lortutako puntuazioa kontuan hartuta, merezimenduen balorazioan atalak agertzen diren hurrenkeran.

Epea amaituta eta erreklamazioak aztertuta, halakorik balego, puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da, **eta oposizio fasera pasatuko diren, gutxienez, 50 hautagaien hautaketa egingo da.**

Bigarren fasea

6.5.- Oposizioa.

6.5.1-Proba teoriko praktikoa (nahitaezkoa eta baztertzailea).

Ariketa bakarra: nahitaezkoa eta baztertzailea.

Ariketa hau zero (0) puntutik hogeitara (20) puntura baloratuko da eta hamar (10) puntu beharko dira gainditzeko.

Ariketan test moduko 50 galderari eta erreserbakoei ere erantzun beharko zaie idatziz. Epaimahaiak galderok hautatuko ditu oposizio fasera heldu diren hautagaiei aurrerago emango zaien galdetegitik.

Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzun gabeko galderengatik.

Zati honetako puntuazio totala lortzeko, gainditu dutenen zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira banaketa proportzional baten arabera, hau da, (50) puntuko zuzeneko puntuazioa izango da hogei (20) puntuko amaierako puntuazioaren parekoa. Eragiketa hauek egingo dira hautagaien izen-abizenak jakin barik.

Proban parte hartzeko tasak ordaindu beharko dira horretarako zehaztuko den epean.

Tasa epean ez ordaintzeak suposatuko du hautaketa prozesutik kanpo geratzea. Ez da aparteko eperik izango tasa ordaintzeko.

Likidatu beharreko tasa hori ezarri da 1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen duenari jarraiki. Tasa 11,10€koa da.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko ditu desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu den bezala hala eskatu dutenentzat, hautagai horiek gainerakoek aukera berberak izan ditzaten, betiere horrek probaren edukia desitxuratu barik, aldi baterako langileak kontratatzeko deialdi batek izan beharreko tramitazio arina moteldu barik eta lanerako eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

6.6.- Lan-poltsan sartuko diren pertsonen **hurrenkera** erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: ikasketa-tituluen eta hizkuntza ez ofizialen merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta proba teoriko praktikoaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

- 1.- Emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 2.- Lehentasuna izango du oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak.
- 3.- Lehentasuna izango du lehiaketa fasean puntuazio handiena lortu duenak.

4.- Lehentasuna izango du baremoko atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak, oinarriotan atal horiek agertzen diren hurrenkeran.

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da, Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorrean esaten den legez.

6.7.- Hautagaiei eragiten dieten prozesuko ekintza guztiak web orrian argitaratuko dira, 4. oinarriko lehen atalean esandako lekuan. Jakinarazpenetarako jarraituko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluei.

Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-

Hautapen prozesua amaitu ostean, epaimahaiak hautagaien sailkapena egingo du, puntuazio totalen arabera, eta bakoitzak atal bakoitzean lortu duena zehaztuta. Gero, UPV/EHUko Gerentziari helaraziko dio zerrenda, prozesuen gaineko behin betiko erabakia har dezan.

Epaimahaiaren proposamenen kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio UPV/EHUko Gerentziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan-poltsan honako hauek adieraziko dira:

- Kide guztien izen-abizenak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi honetan parte hartu duten kideek baremoaren arabera lortutako puntuazioa.
- Egiaztatutako euskarako eskakizuna eta egiaztatutako ingeles, frantses edo alemaneko maila.

Zortzigarrena.- Gorabeherak.-

8.1.- Epaimahaiak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua egokiro egin dadin.

8.2.- Deialdia, oinarriak eta haietatik sortutako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutako kasuetan eta eran.

8.3.- Deialdi honekin lotutako informazioa emango da UPV/EHUko AZPkoen Zerbitzuan, Langileak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Atalean (Errektoregoaren eraikina, beheko solairua, Leioako Campusa, Bizkaia).

Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-

9.1.- Lan-poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak aurkeztu beharko ditu bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, horretarako zehaztuko den epean.

9.2.- Ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako epearen barruan hautagaiak ez badu dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen baldintza guztiak betetzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.